

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### SEGURTASUN SAILA

## 5199

*EBAZPENA, 2023ko azaroaren 8koa, Segurtasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez iragar-tzen baita Gurenet atarian noiz argitaratu den 2023ko abuztuaren 22ko Ebazpenaren bidez deitutako prozedurako behin betiko atxikipenak erabakitzen dituen 2023ko azaroaren 2ko Ebaz-pena.*

Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako Betearazpen Eskalako komisariondoko kategoriako zenbait lanpostu izendapen askearen bidez behin betiko betetzeko prozedurarako deialdia egiten duen Segurtasuneko sailburuordearen 2023ko abuztuaren 22ko Ebazpenaren hirugarren ebazpen-zatiko 2. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritik (C279) (irailaren 19ko EHAA, 179. zk.) eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 14.2.d artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau

#### EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra.– Jakinaraztea 2023ko azaroaren 6an argitaratu dela Gurenet atarian Segurta-suneko sailburuordearen 2023ko azaroaren 2ko Ebazpena, zeinaren bidez behin betiko esleitzen baitira Ertzaintzako Betearazpen Eskalako komisariondoko kategoriako lanpostuak, izendapen askeko sistemaren bidez bete beharrekoak, Segurtasuneko sailburuordearen 2023ko abuztuaren 22ko Ebazpenaren bidez deitutako prozeduran (irailaren 19ko EHAA, 179. zk.).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 8a.

Segurtasuneko sailburuordea,  
RODRIGO GARTZIA AZURMENDI.